

## **Euzkadik ez dezala botu bat ere galdu**

*Deia, 1977-06-11.*

Hauteskunde hoiek ez dira askatasun osoan eta garbiki antolatu. Badakigu. Egia biribila da hau. Ikus, bestela, "demokrata" berri hoiek utzi ez duten aginteaz baliatuta egiten ari direnak.

Lotsagarria da hau.

Hala ere, behar dugu lehen posibilitate garrantzitsu hau hotzean aztertu.

Alderdi eta talde batzuk hauteskundeei uko egin die. Badituzte arrazoiak. Ez dira denak bihozkada edo setakeria hutsak: gure presoak etxeratzea zen legezkoa, eta honen ordez, atzerriratu egin dituzte batzu; atzerriratu asko ez da oraindik etxeratu; alderdi eta talde guztiak ez dituzte ofizialki onartu; komunikabideak ez dira denen zerbitzutan jarri; giroa ez da desarmatu; epaile izan behar zuen Suarez, parte ere bada, eta hauteskunde bezperan telebista agerraldi bat egingo du!

Hoiek ez dira demokrazian jarri behar diren baldintzak.

Kezkatx bat ere ez dugu honetaz.

Lotsagarria da hau.

Hala ere, bururik ez dugu galdu behar.

Hauteskunde hoiek iragan eta gero, ez dute gure partaidetasun-eza eta honen arrazoiak kontatuko direnak, botuak izango dira. Eta botu hoiek ez dira izango gure herriaren asmo sakonen adierazle, aitzitik, gure etsai guztiak, ezker-eskuin, botako dutenez, gure herri-asmoaren ondorio oker bat erakutsiko dute.

Berrogei urtetan gure Herriaren aldeko instituzioez iritzi bat emateko aukerarik izan ez dugunez, lehenengo erresultatu hoiei begira dago Espainia eta mundua.

Eta hura Herriaren egia, botatzen ez bada, ezkutuan geratuko da berriro.

Arrisku honetan gaude.

Jarri zaizkigun oztopoak atxakiatzat hartuak izango direnez, herriaren aurrean zenbatuko diren botuak, "egitazkoak" bezala hartuak izango dira. Propaganda bidez, gure Herriaren irudia ahulduko da, eta bide batez etsaiena indartuko dugu.

Gure asmoak, ames-txoro huts bezala erakutsiko dituzte numeroekin. Nere ustez, botatu egin behar luke gure herri osoak.

Gero planteiatuko dira egiazko arazoak, izango dugu gure hoiek erakusteko denbora; baina, ez gure Herriak galdutako hauteskunde batzuen ondorioz, irabazi eta gero baizik.

Alderdiek eta taldeek salba dezatela berena den posizioa; hau legezko iruditzen zait; baina talde ea alderdi hoietako diren gizon eta emakumeek ez dezatela guztiona den Herriari eman diezaioketen –eta Herriak derrigorrez behar duen– boturik galdu.

Nori eman?

Abertzale den edozein talderi, Euzkadi eta Euzkadi-ren arlo nagusiak defendatuko dituzten alderdietako bati.

Botatu egin behar du gure Herri guztiak.  
Boto hoiek bakarrik zenbatuko baitira 15 iluntzean.  
Gero gerokoak.